

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE


DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bigarren Urtea - Pamplona - Septiembre 1967 - Buruilla - Iruña - 19^{gn} zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA



MANEZAUNDI



Manezaundi bizi izan balitz aurten beteko zituen ehun urte. Manezaundi erran dugu; baño nork daki, gure artean, Manezaundiren berri? Nunbaiteko 'txomin-errero' guziak obeki ezagutzen ditugu Eskualerrian, gure etxeko jaunak baño. Eta jauna ginuen Manezaundi...

Bere amarendako Enrique zen beti; margol artista bezala, Zubiri. Bere ganbaran sartzelarik, Manezaundi. Gure Juan-aundi bezala da. Baxe-nabar'tarrerri erraiten diete manexak; Maneztiti eta Manezhaurra... ainbertze ba da!

Izan ere sortzez manexa zen Zubiri. Gerraren atzaparretatik iges joanak, Donibane Garazi'n ziren ura sortzean bere gurasoak. Luzaide ainbeste maite zuen gizona etzen Luzaiden sortua.

Bi aldetatik bildua du gure gizonak bere izen aundia: margol (pintura) aldetik eta

idazlanetatik. Margolari bezala, Iruñe'ko «Artes y Oficios» ikastetxeko maisu zen. Ortako, ikasketak Paris'en gaindik eginak zituen. Ona nik ezagutzen ditudan zonbait lan:

«Azpilicueta, el doctor Navarro», ara zer dion beräk iduri ontaz: «Nik egin nuen behin aren iduria —Azpilikueta mintzo da—, (hori da nere lanpidea, irakurleak) goxo baizitzaitan, eta ene neurri xumearen heinean ohoratze horrekin gure gizon aundia. Ze karrarekin lotu nintzan lanari! Eta Diputazioiak erosirik, han dago yauregiko gela batian nai duenaren agerian.

«Carlos III de Navarra», au ere Diputazioan.

«Jaunaren Bataioa», Luzaideko elizan.

«Luzaideko ikusgarria», Bere erriko Ayundamenduan.

«Luzaideko plaza», Etxepareinean.

«Bei nabarra», Goyenetxe'rako egin.


Bestalde, idazlari bezala bere lanak jakingariak dira. Naparroko gizon aundien aipamenak, oialean ezar nahi balitu ere ez litzuke ain sakon eta xeheki erremarkatuko. Erri oiturretan gatza eta bixitasun goxo dario bere lumak. Eskualerriko gertakizun eta izakera erabiltzen dituelarik jakintsunaren begi zorrotza ageri da.

Egunkaritan anitz idazten zuen. Ez dira bere lan guziak bildu ahal izan. Bilduma ederra A. Irigaray jaunak «Prosistas Navarros» izenarekin egin duena.

Idazkera errikoia du; Luzaideko mintzaira polita xuriketarik gabe, bazterretetan mintzo den bezal bezala. Ba da zer ikasia bere erran aberats eta molde berezitan. Lan gutxi baño, mamitsuak.

Ehun urte muga dela ta elitaike gaizki Luzaideko eskol-etxe zaharreen arri marratuño baten ezartzea. Luzaidarrak ain huntsa beren gauzak egiten dakitelarik ez ote dira ideya ontaz jabetuko!! Eskual festa polita egin laike, eta luzaidar ospetsu baten izena aize guzitara zabaldu. Denon laguntzarekin konda lezakete.

Zankozako bigarren 'Lore Yoku'-en Euskerazko Poesian Sariak



Zankozako Irian «Lore Yoku»-en Euskal Poesian Sariak erabakitze izendatu ziren Juradukoek euskal lan guziak irakurri eta aztertu ondoren Erabaki au artu zuten:

EUSKAL METRIKA JATORRAZ ERATUTAKO POESIAN SARIAK

1.—Irabazle: «Zutiñik Naparroa» izeneko Poesia. Egillea: **FERNANDO ARTOLA SAGARZAZU** Yauna, Ondarribiko semea dena. Iruñeko «Euskal Erriko Adiskideen Elkargo» aren «Euskal Yakitearen Akademiak» emandako iru milla pezetako eta sortzezko lore edo lore natural bat.

Sariondoko, edo Acesit, Irabazle: «Adibideak» izeneko Poesia. Egillea: **Donostiko Joshe Zatarain** Yauna. Iruñeko «Caja de Ahorros» delakoak emandako milla pezetako.

II.—Erronkariko mintzaeraz idatzitako Poesian Saria.

Irabazle: «Erronkariko iror gizon» izenezko Poesia. Egillea: **Isabako Bernardo Estornes Lasa** Yauna. Erronkariko Ballearen Aiundamentuak emandako iru milla pezetako Saria.

Aipamen berezi bat «Urbasatik Kantua» izena duenak irabazi du. Egillea: Ondarruko Manuel Zubikaray Yauna.

Zankozan, 1967'ko Buruillaren 5'egunean.

Jose Mari Satrustegi, Pedro Díez de Ulzurrun, Jose Estornes Lasa eta Felipe Yurramendi.

"Euskal Besta" Berako errian



Agorrillaren azken igandean (27 egunean), Berako errian itzal aundiko «Euskal Besta» mirengarri bat antolatu zuen gure Diputazioak, eta bereartan «PRINCIPE DE VIANA» Elkargoaren «Euskeraren Aldeko Saillak» beratar irureun euskaldun muttiko eta neskattikoei euskerazko azterketan (esamiñetan) irabazitako sariak eman zizkien.

Azken orrian eta baita ere azkeneko bigarrenian gure irakurle maiteek besta onen klase guzietako berri eta xehetasunak irakurri (leitu) ahal izango ditu.

ENRIQUE ZUBIRI

Gizon aundien gauza txikiak jakin-garri izaiten dira. Sartzeraz dihoan iruzkiaren itzal luzea bezala, aundituz-aundituz joaten dira; eta azkenez, gauaren besotan lokarturik, ezta kiguzen pago bat, edo oihana. Eguren erdian izan etzuten itzala...



Enrique Zubiri, «Manezaundik», Luzaiden du bere arrobia. Egunkari, idazlan eta paper puska, ba zen Goyenetzeko ganerrian meta ederra. Maria Dolores Etxeberriak daki auen berri.

—Errazu, Maria Dolores; zer egin ziren paper ariek?

—Su eman eta erre. Espainiako gerla asi zelarik ez ginen fida. Eskuarazko gauzak gaizki ikusiak ziren, garai artan.

—Nun zen Zubiri 1936'ko uztailaren 18'an?

—Gure etxean. Berak ekarri zigun karrikatik lenbiziko berria. Izan zi-

ren, beti bezala, bildurra ezurretaraino sartu ziotenak. Egun gaistoak pasatu zituen gizajoak.

—Zer egin zuen ondoko egunetan?

—Baserri aldera jo zuen; «Aitzurrean» egon zen. Iru lau egunen buruan joan nintzen eta «Imitación de Cristo» leitzen arrapatu nuen. Enekin jeutsi errira eta etzakoten itzik erran. Orduan trankilistatu zen.

—Familiaren berri jakin nahi gikuke orai. Zenbat anai-arreba ziren?

—Sei anai eta arreba bat. Au serora sartu zen komentuan. Duela urte guti hila da. Enrique zen anai ttipiena; eta Bizenta, serora, onen aintzinekoa.

—Luzaiden sortuak ziren denak?

—Enrique salu, denak. Txikiena sortzean Donibane Garazin bizi omen ziren gurasoak, gerlarengatik iges joanak. Luzaiden sekretario zen beren aita.

—Zoin etxetan bizitzen ziren?

—Gure peko aldeko etxean. Ura izaten zen eskol-etxea. Orai zurgin lantegia dagon lekuan.

Iruñeko «Artes y Oficios» izeneko ikastetxean maisu zen Zubiri. Ongi pintatzen zuen. Bizpalau «kuadro» ba dira Luzaiden eta gure galdera auxe da:

—Ba dakizu margola auen berri?

—Ayundamenduan dagona Xabier Zubiri, pentsalari aundiaren anai batendako egina zuen. Ezteietako presentia. Gero ezkontza hura desegitean Erriari utzi zion.

—Xabier Zubiri, filosofo aundia aipatu duzu. «Manezaundi» ren familikoa baitda?

—Bere anaia Migelen semea. Dostira ezkondu zen anai au.

Béderatzi urtez segidan, Manezaundik gehienik maite zuen ganbaran lo egina dut eta ohe berean. Urtero agintzen zien: «beti bezala, Ondarrolako mendi ederrak leiotik ikusten diren ganbaran ezarriko nauze». Eta beharko ezarri; au beste pundu bat:

—Bere izatez nola zen Zubiri?

—Artista. Orrekin dena errana da. Eta artisten gauzak... Iruñen etzuen anitz denbora egiten etxe bakoitzean. Etxekoengandik diferenta zen. Erraiten zuen, aitatxik etzakola baitoan bere izena bakarrik eman: izateko moduan ere bere urak zituela. Enrique Aguirre jaunak jaso zuen.

—Konda zinezake istorio zombait?

—Bai gehiago ere. Gau batez okupatiak ginen amatxi ta biok, eta Zubiri frango kezu. Afaldu eta joan orduko nun asten den oiuka:

—Faustina, Faustina! Fite, etorri fite!

—Jesus! Zer du gizon orrek? erran zuten amatxi.


Lasterka joaiten nitzako eta nun asten zaidan:

—Ez. I ez! Faustina etortzeko erran dinat. Lipia (araña) ba dela ganbaran. Eta antxe, lipia hiltzera joan behartu zitzakozon Amatxiri.

Zer aberastasuna ainbeste paper erreka izan ez ba lira! Bere letretan agertuko ziren gauzak! Gelako imar-mau bat hiltzeko kuraiarik etzuen gizonak zer kalte egin ote zezaken munduan?

Baño, gerra gerra da; eta Manezaundi eskualtzalea. Gaur izan baltz ez genituen erreko—dio Maria Doloresek—; ba da ezpada, erre genituen eta orai denak joanak. Negargarria.

SAGI



ELIZAREN ITZA

Batikanoko Batzar Nagusiaren Ondorioak

Batikanoko Eliz Batzar Nagusia dala ta, izugarriko zalapartak sortu dira zenbait alderditan, orain arte itxuraz bare-bare zeuden urak astindu dira, bear bada lendik azpizana egiten ari ziren ur azpiko furringerak (corrientes subterráneas) azalera jauzi dira, berri xurria sortu da, batbatean Elizaren jokaera asko Liturgi, Pastoral, baita Dogma berean ere, Elizak nai lukean baño aintziñago berritu nai dituzte; zarrak, zar direlako bakarrik, muzindu, orain arte adarra jotzen ari izandu balira bezela zarrak. Agustín, Akinoko Tomás, Alfonso Ligorio Santuak modatik pasatu dira, liburutegitako txoko izkutueta sartu bear dira, naiko buruko-min eman dute ta beren silogismoekin, badakit ain garbi eta gordinki mintzatzea ez direla ausartzen berrizale oiek baño «latet anguis sub herba», belazean estalirik datza subea.

Ainbeste istilluk etzarri—azi dute Jacques Maritain. Geienak ezagutuko duzute Franziko filosofo ospetsu ori, jakinduriz aña santutasunez ornitua, Franzisko eta Ipar-Amerikako Ikastol Nagusietan (Universidad) Akinoko Tomás Santuaren filosofi eta Teologia ospe aundiz erakutsi du. Ona bere bizitzako xeetasun batzuk. Eunki onen asieran Sorbonako Irakasleen nihilismo edo utskeriatik nazkatuta Egi billa zebillen, an topoztatu zun bera bezelaxe kezkatuta zebillen Rusiko judutar bat, neskatxe argia. 1905'an ezkondu ziren, Bergson filosofo idealistarengana jo zuten, on aundia egin zioten onek garai artan Leon Bloyren liburu batek biotza ukitu zioten, Eliza Katolikoa etzuten ezagutzen, gorrotzeko izan ezik, Bloy katoliko gartsua zan, onekin ezagera eta adiskidantza fidar bat egin zuten, onen bide bi urteren burun Parisko Montmartren bataiatu ziren, bi aldetako zendent ixillean, katolikoek etsai purrukatuak bai ziren, gerora oken zuzentasun eta zoria ikusirik pixkanaka bataiatu baziren ere. Bere andre Raissak liburu eder bat du gaztelera itzulia «Las Grandes Amistades» Buenos Aires, Desclée de Brouwer liburu ontan daukazue famili santu onen xeetasun guzik. Aurrik etzuten izan, denak ilda bakarrik gelditzean, Toulousen, Jesusen anaitxoek etxean (Foucold) derama zartzaroko Jacques Maritainek, kristau soilla izanagatik Cardenal izendatuko ote zuen susmuru sortu zan orain bi urte. Batzar Nagusiaren bukaeran laiko gutzin izenean besarkatu zuen Paulo VI'garrenak. Baño arira goazen.

Maritain jaun onek liburu bat idatzi du oraindik erderatu gabea «Le Paysan de la Garonne» Kristau soil zar batek bere buruari galdera batzuk gaur eguneko gertaera batzuk dirala ta «Zarra» itzak bi gauz adierazi nai ditula, dio, larogei urteko aiton dala gillela eta kristau soilla sakon tinkatua. Garonako edo Danubioko baserritarrek berriz anak zelaian jator jartzen dituala, esaera dala, au da, gauzak bere izenez garbi deitzen dituan. Argitaratzean, 40 egunez 40.000 ale saldu ziren. Urrengotik bere erakuspidet batzuk aipatuko ditugu.

Galizia ta Euskalerrria

Liburu bat eskuetan artu nuen: «GALICIA: Exodo y desarrollo» Miguez'tar Alberto Jaunak egiña, eta «Cuadernos para el diálogo» deitzen den aldizkariak argitaratua.

Miguez'tar Alberto Jauna, 27 urteko gizasemea duzu La Coruña ta Madrid'ko Unibersidadetan Filosofiako karrera atera duna.

Jaun onek bere liburuan iru gauzetaz mintzatzen da: a) Galiziako bazterretaz, b) ango bizi-bearretaz, eta c) euren izkuntzaz. Galiziako izkuntza gallego da, ta naiz yendeak ortan itz egin, ala ere naiz elizan ta naiz eskolan euren izkuntza baztertuta dagola, dio.

Eskoletan aurrak gallegoz ikasten asi bearrean, erdaraz ari dira. Nazione aurreratuenak berriz eskola aurraren izkuntzan ematen dute.

Begira Miguez'tar Alberto Jaunak zer dio 141'ko orrialdean:

«Como seguramente mis lectores no ignoran, en la Unión Soviética se utilizan para la enseñanza la totalidad de sus 100 lenguas vernáculas.

La enseñanza es dada en lengua local, tanto en las repúblicas federadas o autónomas, como en los territorios autónomos. El ruso se enseña en todas partes a partir del segundo año, pero como una lengua extranjera, a la vez que otra —inglés, francés o alemán— es enseñada lo mismo que en Rusia a partir del quinto año. Así, un niño ruso sale de la escuela hablando teóricamente dos lenguas; al paso que un niño armenio sabe tres: la suya, el ruso y otra.

En Bélgica, gozan de paridad en la enseñanza el flamenco y francés.

En Suiza, el romanche se iguala al alemán, italiano y francés.

En Francia, por ley número 51-46 de 11 de enero de 1951 se autoriza el uso de las lenguas vernáculas en la enseñanza primaria y en las Escuelas Normales, escuelas secundarias y Universidades, como asignatura facultativa.

En el Reino Unido, se utiliza el galés en la enseñanza primaria; el lituano en Polonia; el lapón en Suecia, etc.

Por su parte, la UNESCO, cuya autoridad no es fácil de poner en duda, aconsejaba en su Conferencia General de 1951 que es «preciso esforzarse en impartir la educación en la lengua materna, hasta el grado más avanzado posible. Es particularmente conveniente que los niños inicien su enseñanza en la lengua materna, pues esta práctica abrevia la brutal transición entre el hogar y la escuela. Si la aprehensión de ideas y conceptos nuevos suponen para el niño un esfuerzo, este esfuerzo será doble y retardará su progreso intelectual si tiene que asimilarlos en un idioma que no es el suyo familiar. Si la lengua de la escuela es la misma que la del hogar, la unidad entre ambos ámbitos sociales será cumplimentada, con lo que la vida familiar y el proceso docente tenderán a cooperar más racionalmente».

En Galicia, este problema se ve con claridad meridiana. La enseñanza primaria en Galicia se ha realizado siempre o casi siempre en castellano. Pero Galicia, ya lo hemos dicho, es un país bilingüe, con dominio del gallego en cuanto a número e importancia. En el campo gallego, donde nadie o casi nadie habla en castellano se enseña en esta lengua. En las Escuelas Normales donde se forman las promociones de futuros maestros y maestras que irán a trabajar al campo gallego, no hay ninguna asignatura de Lengua y Literatura gallega etc.

Au leitu ondoan etzaizu iduritzen Galiziako problema berak izkuntzari buruz, guk Euskalerrria ditugula?

BERRI-EMALLE

AURITZEKO FERIE TATIK

Argitaratzen dugu «Manezaundi» ren iskribulan bat gure leitzaleek (Irakurleek), Xabier Zubiri Gortari zenaren euskara goxo, pollit eta argia leitu eta txastatu dezaten.

Gure gizonak, tratu eder bat egin ondoan, sartzen dira ostatuan.

—Hea, Gaxuxa, ekarzin berehala bi pinta, oberenatarik. —To, Pello, leher in behar nikek burutik pasatu balin badut ere holako prezio pollita in behar nikeela. Ba dakika zombatian saldu ditudan Baztandar tralulant galantari?

—Bó, nik dakita, Manez!

—Mila eta berrehun ta berroita-mar liberetan biak.

—Gizona; hori huk, hori, xantza. Debria! hiri dirua ahurtaka. Tó, ene lau zikiro horien eroslerik nihundik eztuk ageri.

—Yinen zauzkik, Pello; ehizala arrangura. Guazen, guazen, hea Agoitzeko hura ikusten dugun.

Azkenian agoitzarrak erosten dazko lau zikiroak Pellori, eta berriz ostatuan sarturik, eta bizpahiru pinta hustu ondoan, abiatzen dira etxealderat egundainoko mozkorra-ekin, hordi arraildiak, doi-doia xutirik egonez, besarkatuak, bideari zehiarka, harat-hunataka, irrirtzina eta kalapita gorrian.

Ilun beltzian, Gorosgarako lasterbide patar artan, bide itxil eta lohitsu lerraturik, firristan bi gizonak badoazi maldari behera itzulipurdika, eta sasi baterat sartzen dira oldar gaitzian. Azkenian loale pizu batek garaitzen ditu, eta gaua an iragaitzen dute.



«Goyenetxe», Manezaundi denboran bizi izan zen etxea.

Biharamunian, goizeko izotzño batek iratzarrarazten ditu, eta buriak arindurik, emeki xutitzen dira.

—Atx! Pello, ez dikiat zer debru dutan lepo huntan, arras nekez higitzen ahal diat burua.

—To, nik ere, Manez, sahets huntan, gerruntzian, min aundia diat. Ba, eta sudurrian ere badiat zerbait...

...abiatzen dira berriz bideari, oraikoan xuxenkiago, eta azkenian, eguerdi airian sartzen dira bere etxetan, etxekandierak berantetsiak zaudelarik beren etxe aitzinean, zerbait gertakari itsusi igurikan eta herabeen.

—Bana errak, hi, Manez: hori dea etxeat jiteko tenoria? Alaintso! ze tresna dugun etxean! (Eta ahotik

ateratzen zaizko emazteari elauturia bizian itz larrienak).

—Alo, alo; nai duna ixilik egon? Badinat aski egungo.

Eta itz horien ondotik, Manezek sakelatik ateratzen ditu diru-paper yoriak, eta emaztearen eskuetan ezarririk, erraiten dako erdeinuz:

—No, altxazkin; ni banian oherat, akitia eta trenpe txarrian nun.

Diruaren boterea! Holako diruketa ederrak emaztearen kopeta iluna argiarazi zuen; eta begiak pindarretan, ahurrian tinki tinkia atxikiz, badoa beiaeren eta aretxaren sari edereen gordetzerat armairuko xoko kukutuenean.

...bere senarra ikustean ohean zabal-zabala lo zurrunga ederrenian, bere baitan dio:

—«Yinko huna! Izan diteken senarririk gisakuena eman daazu, Yauna».

MANEZAUNDI

Eujenio ta bere astuan berriyak

P. Yanzik jarriyak

DOÑUA: Zaldi zuriarena...

Ekartzen ditugu gaur Lesakako Yantzi izeneko zena-
ren «bertso berriak». P. Yantzi Lesakan sortu zen, bertso-
laritza maite zuen eta baita bertsoan ari izaten ere
Berak jarritako «Bertso paperak» badauzkagu gure be-
gien aurrean; orain bost urte baditu Baztango Erratzu
errian Yantzi Yaunak eman zizkigula. Orduan ezagutu

gendun lauretan ogei urteko zahar on ori, eta Bertsola-
rien Txapelketa Erratzun zela, berak lenbizikoz eta bere
borondatez bertso batzuek kantatu zituen. Denbora gutti
ondoren Lesakako Yantzi il zan. Pepito Yantzi acordeo-
nista famatuaren aita zen. Goyan Bego.

— 1 —

Itz neurtuak jartzeko
egin det promesa,
nere berri jendiak
jakindu beza,
neretan ikusten det
alderdi alrebesea,
biotzaren betian
bai daukat tristeza,
da nere deritza,
Eujenio beltza,
urtetan grandeza,
au nere pobrezta,
asto zar bat daukat
nere interesa.

— 2 —

Asi zera esaten
ni naizela zarra,
urte batzuekin baña
naiko azkarra,
zuri baliatuzten
zaitzu nere indarra,
ekartzen dizut zenbait
egurren adarra
eze ta igarra,
ai nere bizkarra,
zuk saldu ta farra
erosi patxarra,
bizitzeko badezu
nere biarra.

— 3 —

Lanpide aundiakiñ
ni naiz arkitua,
astotxo bat badet
zar ta ajiua,
lana eman baño len
dago akituua,
askotan eziñ juenez
bidian gelditua,
dago nagitua,
eziñ mugitua,
motel ligitua.
Asto malditua
lana det zandalia
eziñ ornitua.

— 4 —

Ni azpiyan artuta
zijuaz mendira,
zere edo besten
gauza den tokira
jaberik ezpadago
iñondik begira,
konzieziari kaso
egin gabe tira,
gero erretira
menditik errira,
Artzalliak badira
len ballen salida,
dirua artu eta
ardotegira.

— 5 —

Goiz goizetik asita
lanian nabil larri,
ikusten det amaika
istillo gorri,
jatera emateko
ondo bera orri,
etzaude zu gosiak
ain gutx egarri,
indarrez zaude urri
esan so edo arri
ajol gabe jarri,
zerk zaitu okarri,
nere gorputz ta ariman
kondenagarri.

— 6 —

Goizian lanian asteko
zure erreminta,
kutxet erdiko pota
bat aguardintua,
gero berdiñ ardotik
iru edo lau pinta,
orra jendiari esan
daguena jakinta,
nik gose irrintza,
zu eunpo eginta,
oyera igo ezinta,
ukulluan etzinta,
ezpañetan daukazu
matsaren tinta.

— 7 —

Ederki ari zera
gezurti lasaya,
zeurre zerade
ni bezin ondo naya
bai gustatzen zaizkizu
artua ta zaya,
bestela ezdezu jartzen
itxura alaya,
gauz on billa saya,
txarrari usaya,
egunero jaya,
lana dezu etxaya,
zurekin badago
prenda on baten gaya.

— 8 —

Zure egon tokiyak
dira edari gelak,
dirua daukan bitar-
tian sakelak
bai gustatzen zaizkitzu
ardo ta pastelak,
zu goxoketan eta
neri lasto ustelak,
janari motelak,
edateko epelak,
asto zay kruelak,
beti utsak ganbelak,
ez dauka enpatxorikan
nere sabelak.

— 9 —

Ederki ari zera,
nere desonratzen
kulparikan gabe
jabian totxatzen,
nik ez det ortaraño
ezertan faltatzen,
beti nabil zuretat
gauz onak plantatzen,
zer dezu pensatzen,
beti gaizki esaten,
okasiyo jartzen,
nauzu ernegatzen,
laister asi biarko det
ezurrak austen.

— 10 —


Neri ezurrak austen
zerala asiko
ondo begira zazu
lendabaiziko,
ordaindu gabetanik
etzaitut utziko,
egiñalak egiten
ni re naiz ariko,
pullanka ta ostiko
nik zaitut jarriko
elbarra betiko,
dezu ikusiko,
zeñek degun lan ortan
irabaziko.

— 11 —

Nere partetik oray
nai det despeditu
ez det nay zu gandik
geyago aditu,
lanpide auundiakiñ
nintzan ni arkitu,
oray arteraño naiz
alperrik aritu
zu nairik lezitu,
asko det segitu,
gutxi zait balitu,
ez nauzu obeditu,
asi bezelaxen biar-
ko det gelditu.

— 12 —

Zuk asiera eta
nik errematia
obia degu len bai-
len ematia,
Eujenio ontara
obeditu zaitia,
ezta ondo elkarri
gaizki esatia,
onetan juatia
guretat kaltia
zertako nastia,
nagusu maitia
aurrerat obe degu
biyok pakia.



«ESTROPETAN»

Urtero-urtero, Buruilla ill zoragarriyan izaten diran estropetan ge-
ra. Leen estropak. Orain... jnai ta eziñ!
1952 urtian izugarri ederrak izan ziran. Eman zun ORIO'k berria.
Ara emen urte artan SARASUA jauna ta bere kuadrillari anto-
latutako bertsoak.

¡AUPA BETI ORIO ERRIKO ESTROPALARI
BERDINIK GABEKUAK!

Gure Euskal erriko eder ziran estropak
argal agertzen ziran jantzita eriotz erropak.
Irintsi eziñ zituzten porru saldaren zopak.
Aurten bulartsu altxata gogoz artu dituzte
ollo salda, okela, biña kafe ta kopak.

Jeiki zaizkigu berriz estropada aldiyak,
luzaro igaro ondoren naigabe ta larriyak.
Jarri dituzte sendo bikaiñ zimendu arriyak.
Ainbat koroi loratu emendikan aurrera
jasoko ditu, noski, ORIO'ko erriyak.

«Emen gatozti» esatian emengo arraunlariyak,
ernai nun nai zegozten belarri ta begiyak.
Antziñetik azeuzkaten emana agiriyak.
Danok zekiten ongi azaltzen bazan ORIO,
ikustekok giñala gauza arrigarriyak...

Urriak baño geigo baliyo dun kemena,
goratu dezu egoki erri onen izena.
Ez da izango (diot), ez, noski, au azkena.
Urtek datozti berriz. Pixtu su gar indarrez,
itzali gabe iñola zure itxaropena.

Auzo ta erbeste daude erri oni begira,
atera titulako gauz on asko argira.
Nun naitik datoz jendek gure bizi kabira.
Izan zan kaxkarrena. Bere etorkizunak
diz-diz argituko du txinpart argiz lur bira...

Zuretat, SARASUA, nere omen apala.
Ongi dakizu, noski naizela agitz argala.
Patroi izugarriya, etzera, ez makala.
Zure lagunarekiñ elkartu t'artzazu
besarkada estua, ta diruz... eska ala.

JOAQUIN ALDAVE

"UDA AZKENA, ZU GURE POZA"

¡Auxe egun moztutzia
Uda-Azkenian!
Ego aizek nagusi
bere garaian.
Gorri noiz nai goibelak
argi ta illuntzian.
Aurten lurraldek zer nai
zabal emanian.
Bildu ta bildu emaitzak
egualdi onian.
¡Au poza dago lertzen
gure biotzian!

Itsas barrundik bultzan
datoz olatuak
gaillur galantarekiñ
goi-goi arrotuak.
¡Abek dituk denborak
dauzkan gorrotuak!
Enarak jun ziraden
pizkor egatuak
neguaren itzalez
oso bildurtuak.
Lazatu gabe mendik
beraño elurtuak.

"Tori, (dio Udarak)
Uda-Azkenari,
nere musu lastana,
kosetxha ugari.
Asko nai zaitutela
ikusten da garbi.
Ez iduki bildurrik
beltz dan Negu'ri.
Oroimen on urtia;
eskerrak Berari,
guria degun Jauna,
Jaungoiko aundiari.

Berriz Uda-Azkena
lagun maite, kutun
ezti zabaltzallia
barrun, oso barrun.
Uzten digu arima
oratu ta bigun.
Baserri txuri ederrak
kaletikan urrun
etxapian badauzka
ainbeste ontasun.
Eman deiola Jaunak
luzaro osasun.

Bukatzen dira jaiak
erri t'auzetan.
Erortzen dira mendik
neguko luetan.
Laxter euri ta ekaitzak
egun ta gaubetan.
Aize iskanbill gaitza;
trumoi orruetan.
Mendiko eder-ederra
eriotz besuetan.
Gero beren tontorrek
zuri elurretan.

Jo lezake aiziak
amorrarekiñ.
Betor Negu zitara
kopet zimurrakiñ.
Zer jana ez da falta
sagarduarekiñ.
Otorduz bere orduetan
eltze ornituakiñ.
Antxen nai aña frutu;
esni're berdiñ.
Zuaz baserri aldera
nai badezu jakiñ.

J. A.


BI BERTSO SALDISKO BIDE BERRIARI

Saldis gutzia dago
pozetan gainzeka;
bide berriaz dira
mintzo ta kantuzka;
aspaldiko ametsa
gaur dute begizka;
orain ezdute lanik
ibiltzen oinezka.

Labaindik Saldisera
dator bide berri
bost bat kilometrokin
elkartuz bi erri;
ixtilluak daukate
orko ardi-txerri;
amaiak utziaz or
beren ezur-gerri.



YOIAK (Eztai-soñua) BAZTAN-GO EZTAIETAKO KANTAK



Baztango txistulari on bezin euskaltzale zintzo den Maurizio Elizalde
«Yoiak» deitzen diren «Eztaietako soñu eta bertsoak» igorri dizkigu. Uste
dugu Baztango «Yoiak» merezi dutela emen argitaratzea gure euskaldun
irakurleek leitu eta ezagun ditzaten.

— 1 —

Andre novia
Ile oria
Edeki izazu ataria (bis)
Badakarragu bada
Juan Martin bizar aundia.
Ile orio
Edeki izazu ataria
Badakarragu bada
Badakarragu bada
Juan Martin bizar aundia.

— 2 —

Emen eldu naiz
Bañan beldur naiz
Penak izango ote
ditugun maiz (bis)
Gu penetatik libratzia
Elitzake izango gaitz.
Bañan beldur naiz
Penak izango ote
ditugun maiz.
Gu penetatik libratzia
Gu penetatik libratzia
Elitzake izango gaitz.

— 3 —

Nere maitia
Ez egon sustoz
Biziko gera munduan gustoz (bis)
Palazio bat egingo degu
Zekalez edo lastoz
Ez egon sustoz
Biziko gera munduan gustoz
Palazio bat egingo
Palazio bat egingo
Degu zekalez edo lastoz.

— 4 —

Eskalerak abarrez
Sala iratze berdez
Tellatua berriz belar idorrez (bis)
Lan orien egiteko ekarriko
Baigorri-ko Piarres
Iratze berdez
Tellatua berriz belar idorrez
Lan orien egiteko
Lan orien egiteko
Ekarriko Baigorri-ko Piarres
Baztango Ariskungo errian. 1965'
ko Urrilla.



Baztango Eluete erroko Eliza

B A Z T A N

PILOTARIAK

Baztan'go Irurite'ko errian erreboteko Txapelketa izan dugu eta beartean sei pilotari Talde ari izanak dire. Txapelketa au bigarren mallakoa zen baño alare partida ederrak ikusi ditugu eta elkarren arteko gudakal-diak izan dute errebeste. Pilotari taldeak bi zatitan berexiek zaude bakotxak iru ekipa zituela gero bi aldetako irabaztunek elkarren kontra Azken partida yokatu zezaten. Hendaya'koak eta Irurite'koak izan dire Azken-partida ori yokatu dutenak eta yoa den Abuztuaren 13'an izan ginuen «Finaleko» partida aundi ori. Irurite'ko erreboteko plaza beñere ez bezala yendez beterik gure oroitzean plaza ortan egundeño ezpaitugu ainbertze yendeik ikusi.

Partida atakatu izan zen pilotari guziek beren kurria ederki agertu zutelarik eta bakotxak beren ekiparen alde eginahal guziak agertzen zituztelarik. Iruritarrek ongi ari izanak dire eta borrokaldi ederra egin ondorean Auzia bereganatu zuten. Irurite'k 11 yoko Hendaya'k 7.

Irurite Txapeldun. Zorionak. Ori pilotarien izenak aipatu behar ditugu. Irurite... Jose Mari ta Joakin Garate, Urrutia, Huarde, Apeztexea. Hendaya... Sagazazu, Marty, Irazu, Justede, Borja.

Guantez eta errebotean Iruritarrek dire oberenak eta Baztan-Bertizara alde untan gure yoko zahar oiek piztu dituztenak. Yarraiki ortan gazteak eta ar itzazute gure zorionik maitekorrenak eta denen ganetik artu ditzala zuen gidari ta erakustaleak.

BESTAK

Gure eskualdean Agorriko ilabetean badirela bestak, bai berriz erran gabe bestak eta bestiliak ere. Emen aipatuko ditut beren bestak ospatu dituzten erriak:

Bera, Ziga, Sunbilla, Donamaria, Zubieta, Etxalar, Aranaz, Oronoz, Aniz, Arrayotz, Amayur, Zugarramurdi, NARBARTO, Lekarotz, ta Legasa.

Erri guzietan ikusgarri ederrak izan dituzte, batzuetan pilota partidak bertzetan aizkora apostuak eta bertsolariak eta denetan soñu ausarki eta otordu ederrak ere. Denborak ere lagundu du eta yendea ere ibili da eta erran beharrik eztago dantzan ari zirenak denak gazteak zirela.

IZETA

«AXULAR» SARIA

Urteoro bezala aurten ere "Diario de Navarra" deitutako Iruñeko Egunkariak "Axular" Saria antolatzen du datorren kursorako (1967'ko Urtiaren asi 1968'ko Garagarriaren azken eguneraino). Ona emen Sari onen xehetasun eta baldintzak Apezek, Maisuek eta Eskoletara dijoazen aurrek yakin ditzaten.

DIARIO DE NAVARRA convoca el II PREMIO AXULAR, de cuentos populares y narraciones euskaras, para los Centros de Enseñanza Primaria de Navarra, en homenaje al ilustre navarro, príncipe de los escritores de legua vasca.

El Premio se ajustará a las bases siguientes:

1.º Podrán concurrir los niños y niñas en edad escolar que envíen sus redacciones en vascuence a DIARIO DE NAVARRA, con la indicación "Para el concurso de cuentos vascoso."

2.º Los trabajos, de una extensión de dos cuartillas, deberán acreditarse como originales del autor, mediante la firma del Maestro Superior o Sacerdote del Centro respectivo.

3.º Al término del Curso se otorgará el "Premio Axular", y su importe de 1.500 pesetas de primer premio, y 750 pesetas el segundo premio serán entregados respectivamente, tanto a los autores de los dos mejores trabajos publicados, como a sus maestros, Superiores o Sacerdotes.

Asimismo, los trabajos merecedores de su inserción en DIARIO DE NAVARRA durante el Curso serán gratificados con 150 pesetas.

4.º El tema del "Premio Axular" es de libre elección y podrán versar sobre leyendas populares, acontecimientos y sucesos de la vida local, directamente redactados por los niños.

5.º Constituirá mérito preferente de valoración la espontaneidad descriptiva o narrativa de la composición infantil y la redacción directa por el autor.

6.º La presente convocatoria es valedera para los trabajos presentados hasta el día 30 de junio de 1967. Y el Premio será otorgado y publicado en la víspera de San Fermín, Patrono de Navarra.

DIARIO DE NAVARRA, Iruña iriburuko egunkariak sari bat, eritzen da, leen maillako Nafarroko Eskolategietan, 1.500 eta 750 pezetako AXULAR izeneko bi sariekin, euskarazko ipuin edo erri kontu oberenendako; euskal idatzlari nagusi aren oroitzenetan.

Sarian parte artzeko, baldinkizun ok bete bearrak dira:

I. Sari untara sar ditazke: eskolategiko adinean dauden aurrak. Euskaraz idatzi lantxoak igorriko dituzte, DIARIO DE NAVARRA'ri Pamplona. "Para el concurso de cuentos vascos" izenburuarekin.

II. Lanak, geienaz, bi orrialde edo kuartillako edadura izan bearko du. Maisuak, Apezak edo adineko batek bearko du, bere izenekin, aurraren idatzia egiztatu. Lanaren beirik aldean aurrak ere, bere adina eta izendeiturak ezarriko ditu, erriaren eta etxearen izenekin bate-ra.

III. Kurso azkanean lantxo obeneri Axular Saria emanen zaizkie, bai aurrari, eta bai maisu edo gidariari ere. DIARIO DE NAVARRA egunkariaren Euskal orrialdean, aldi bakotx argitaratu diran ipuin aipagarrienen ere, 150 pezetako sari bana izanen dute.

IV. Sariako ipuiñak, edozein gaiaz izan ditazke: ala kontu, erri oitura edo kanta, iosteta, ibillaldi, edo gertakari. Aurrek berek idatziak izan bear dute, iñoren laguntzarik batere gabe.

V. Aurrek bear dute, mintzo diren bezala idatzi. Geiago konta da sarirako, errateko, airea edo gatza, utsik gabeko idatzitzeko era baiño.

VI. Sari untaroko idatzia igortzeko epea. Garagarriaren 30 egunean bukatzen da. Saria emanen da, eta argitaratuko, Nafarroko Zaindaria den, Jaundone Fermiñ bezpera egunean.

IRUÑA, 1967 urteko Buruillan.

NERE IDURIPENA

(Baztango ESKOL-BILTZEARI doakion idazlan mami-tua).

BAZTAN'go etorkizunari buruz ta baztandarren aurre-rapena billatu naiez, asiak ditugu gure Agintariak, azkeneko urte auetan, zenbait lan on egiten: Elizondon gaztetxoendako eginik dago Langile-Eskola edo Escuela Laboral; Baserri askotara bide berri ta errexak egiten ari dira; argi ederra sartzeko asmotan dabiltz ta... nai luteke ELIZONDO'n Baztango aur guziendako ESKOL-BILTZEA edo «Concentración Escolar» laister egin. Asmo ontan Gobernamentua berak izan bear du noski bul-tzazale. Zertaz?

1) ESKOL-BILTZE onek berekin dakarra, Maisu edo Erakusle gutitzea, gure iduriz beintzat. Alde ontatik, gero-rako, diru gutiagokin aski.

2) Erakusle oiek beren lana errexagokoa izanen dute, yakitete berdintxuko aurrak bakarrik izanen bai dituzte bakotxak bere Eskolan. Orrengatik, eskol-ordu guziak, denentzat berdin, ikesten aritzeko garaia izanen dira.

3) Gauzak ongi goanez, aurrek aurrerapen aundia izan bear dute. Diotenez, BACHILLERATO'ko zenbait urte ere eginen dituzte bertan.

4) Baztango erri guzietako aurrek elkar ezagutuko dute, uzkurtsuna galduko dute ta ausartuko dira. Gero-rako, ezagerak egiñak eta batasuna sortua...

5) Errietatik Eskoletara, Estaduaren gain, autobus' an eramen eta ekarri eginen dituzte. Alde ontatik, bada, ez da zertaz kezkatu.

BAÑO asmo eder onek, zugaitz eder onek, ez ote du bere itzelik?

Ona bakar batzuek:

1) Erri-gaiñetik, edo beribil-bide (carretera) tik, urrun xamar bizi direnen aurtxoak goizeko zer ordutara-ko yeiki-erazi bear izanen dira, autobusera garai onez ateratzekotan? —Batez ere neguan, ez ote dira ilun

konkortuta etxeratuko?—. Goizean autobusa galtzen badute, egun guzia eskolik gabe?

2) Aurrak goizetik arratseraño etxetik urrun egote onek, bertze Errezumetan gertatu dan bezala, ez ote du familiaren maitasun goxoa ozutuko? Guratsoen ardurak txandatu ta tipituko? Umetxoak guratsoen gandik urrun-duko?

3) Aurrak, gazteak bezala, lagunkoiak dira. Orain kexo gera igande ta bestetan gure erria uts dagola, basamortua iduri duela, aurrak bertzerik ikusten ez dirala gaztedia dena badoalako... Ez ote gera, gero, aurrak gabe ere geldituko?

4) Eskola oiek egiteko gutienez bear diran ogeitamar milloi oiek, Ayuntamenduak nondik atera? E diak larrutik bezala, ez ote «kontribuziotik», oraiokak geiegi ez balira bezala?

5) Beldur izatekoa da ESKOL-BILTZE orrek aurrak Elizatik, ta beren apezetatik, urrunduko dituela eta arrotzuko: Gauz onen ondorena izan daiteke Doctrina edo Katezima gutiagi ikastea; gure erriek, mende guti gabe, bere sinesmen edo fedean gibelat egitea eto gure Elizak laister erdi utsak ikustea...

6) Beren apezekin arrotzen ba dira aurrak, nor aterako ditu Seminario eta Praile Ikasetzetako mutiko egokiak, apez-gaiak?

7) Gure Euskera xaar eta maiteak ere izan dezake galtze ederra. Zoritxarrez, aurrak Elizondo'n ez dira euskeraz mintzatzen. Beldur izatekoa bertze erriakoei ere laister galeraziko dietela.

Gauzak orrela ikusiz, negurtz ongi, artu bear litzake azken erabakia. Gero damurik izan ez daien. Yau-goikoari esker ba dira errietan erakusle edo Maisu aski onak oraingoan. Irauten duten bitartean, zertaz laister-razi aldaketa oiek?

(Baztango «Elkartasuna» Errebistatik artua).

EGIA

FRAILE ANAI BATEN ITZALDIA

Esatera zar batek dio: «Bakoitxek iltzen ditu arkakosoak, al dituen bezala».

Nik, nere itzaldi eta idazkai guztiak, adibideon batekin apaintzea oi det.

Gaurko irakaspeia azaltzeko, gertaketa pare batekin naikoa dot. Lendabizikoana, ni, nerau, ikusle la.

Orain ogeita bostan bat urte, misioak ematen ari giñen Naparroako erri koxkor batean. Nere laguna, beti sermolari bizkorra bazen, egun artan bizkorrago egundu zen. Eliz aurreko alkietako mutiko ta gizonak, koroeko emakume ta neskatxe eta koruko mutill mardulek, ikaraz dardar zeuden, misiolariak Jesukristo Gurutz-Iltzatua eskuan artuta, guztiak belauneko zuehela, bere itzaldia bukatu zuenean:

«Jauna —zion, aurpegia izardiz bustita, erdi negarrez—, Jauna, orain arte, ainbeste bider ta ain axolagabe erori gera pekatuan, infernutaz atzendumta bizi geraldako. ¡Jauna, ez ditzagun aditu Zure agotiki ikaragarri ok: ZOAZTE, MADARIKATUAK, BETIKO SUTARA. Ikaraz ikaratuta gaude gure Eliz Ama Santaren egi zorrotz au gogoratuaz. ¡Beti Zugandik alde bizi bear! ¡Beti sutan sartuta, naigabe illunean bizi bear...! Baño, ez.



Manuel Olaizola «Uztapide», Zestonan jaioa, «Uztapide» izeneko base-riari. Oiarztunera ezkondu eta an bizi da «Lagunzarrene»ko bordan. Txapeldunetan txapelduna, Euskal-erriko bertsolari guzien nagusi eta «aita zaharra». Zorionak!

IKASI, MIKASI...

Gu infernutik salbatzeagatik, Zu ill ziñen Gurutze Santu ontan. Gure damutasun bizia erakustegatik, ara emen nola dagon erri guzti au, belaunikaturik, Zuri barkazioa eske. ¡Jauna (esan denak), Jauna: EZ GAIAGO PEKATURIK, EZ GAITEZEN ERORI INFERNU IKARAGARRI ARTAN...! ¡Jauna (esan berriz denak): ¡EZ GEIAGO PEKATURIK...!.

Gero, misiolariak abestu-erazi ta, erri guztiak kantatu zuen:

Damu det, Jauna, biotz guzitik, Zu ofenditu izana. Ezetz geiago pekatu-rik, nere Jaungoiko laztana. Miñaren miñez, Jesus maitea...

Urrengo egunian, ni sakristian zerbait prestatzen ari nitzela, etorri zitzaidan athuna zar bat, eta esan zidan:

—Jauna, galde bat ein nai nioke.

—Galde, nai dezuna.

—Egi alda, atzo beorren lagu- nek sermonin esan ziun guzia, eo gui gorputzen bildurra sartzeagati esango ziun?

—Dena, egi ziñeskoa da.

—Baño, ainbesteko itsuskeri do pekatuak, ainbesteko kastigu mere-zi?

—Ainbesteko.

—¡Jaunkoa, ain ona ta ain erruki- tosa den eskeo...!

—Baita, ere, epaille zorrotza da.

—Ez daki Jainkoak, gaiztakeri- rako, gure errastasuna ta zenbat tentaldietan bizi geran?

—Bai, badaki, baño ortarako ema- ten digu bere grazia, pekatuan ez erortzeko.

—Ala ere, infernua betikoa bada, ez det ikusten gaiztakerien eta bere kastiguen berdintasunik. Askotan, pekatua eiten da istante batean, bir- rao bat botatzen denean edo, ta ¡infernua betikoa bada...?

—Kontun iduki bear dezu, naiz pekatuen iraupena laburra izanda ere, bere malizia azkengabea dela, Jaungoiko —nori ofenditzen zaion—, aunditasunez eta santutasu- nez, azkengabea delako.

—Nola diote, ba, sermonetan, Jesukristo beso zabalik dagoala Gu- rutzean, denak salbatu nai gaitula- ko; Ama Biriñen debozioa dunak eta Karmengo Eskapularioa deama- nak, ez dela infernua joango, ta ola- koak...?

—Oriek, denak, egik dire. Baño, baita ere, egi da gaiztoentzat azken- gabeko infernu bat badela...

—¡.....!

—Eztzazu mugitu buru ori, eta adi- tu nonbait ikasi nuen kontu au.

—Konta beza, Jaune.

—Orain, nere laguna ta biek, misioa ematen ari geran bezala, ari omen zen fraile sermolari famatu bat Bederatziurren itzaldiak egiten.

Egun bakoitzean artzen zuen gai- tako: Animaren salbazioa, Kristau txintxo edo zabarren eriotza, Ain- geru txar eta gizon gaiztoen infer- nua, ta ala.

Zazpigarren edo zortzigarren egu- na zela, ara non etortzen den erri artara, sermolarien Ordeneko beste fraile bat, erriz erri eskean zebillen Anai bat. Bere lana eginda, elizki- zuna asi baño len, an zegoen giza- gajoa Errosario ta sermonerako.

Egunero bezala, igo zen semola- ria kulpitora, ta asi zun bere itzal- dia:

«Nere kristau maiteak: Gaur Jaungoikoaren miserikordiaz itz egin bear dizuet. Baño, ¡nork azal- du dezake, bear den bezala, nola- koa ta zenbatekoa den Jesukristo- ren errukitasuna? Azkengabea bada Jaungoikoaren aunditasuna, az- kengabea Bere santutasuna, azken- gabekoa da Bere errukitasuna...».

Testametu Zar ta Berriko gerta- ketata batzuek edestu ondorean, ia ongi berotuta, gaineratu zuen:

«Baño, baton batek esango do: Jauna, nik mille aldiz Jaungoiko- ren izen santua zikindu bai det itz zakarrekin...»

¡Ez beldurrik izan! ¡Jaungoiko beti laster dago zuri barkatzeko!».

(Au aditzean, fraile eskalea bu- rua mugitzen asten da, ezetz esate- ko bezala).

«Beste on batek esango do: ¡Nik ainbeste meza uts egin bai ditut...! ¡Ez beldurrik izan! ¡Damutasun biaz aitortzen badituzu uts egin oiek, barkatuta dituzu!».

(Berriz, fraile Anaiak burua mu- gitzen do, ezetz egieñez).

Koruan zeuden mitillek zioten bere barnean: «fraile ok etzeudek konforme; zerbait ikusi bear diagu emen...».


Bukatu zuen sermolariak bere itzaldia, ta, kulpitotik jetxi baño len, txutitu zen fraile legoa, ta, es- kuekin keñu eginda, esan omen zuen: «EGON PISKABATEN...».

Gero, kulpitora igo ta, bota zuen itzaldi motz eta zorrotz au: «EGI DA NERE ORDENEKO PADRE ONEK ESAN DUEN GUZTIA. BE- RAK, NIK BAÑO ESTUDIO AUN- DIGOAK EGIN DITU. BAÑO, ALA ERE, EZ GEIEGI FIATU, ZERGA- TIK: ¡¡EGITEN DIRENAK, PAGA- TU BEAR DITUT!!».

Ta, jetsi zen kulpitotik.

A. ASTIZ ARREGI

ERRIZ-ERRI



IRUÑETIK

Badu zenbait illabete ez dugula argitaratu Iruñeko berriak «Principe de Viana»-ko horri untañ, beraz hemen gaude berri llabur batzuk ezartzeko asmotan.

Lehenik eta sasoin gaiaz aipamen bat eginez, erran behar dugu aurten goa, luze, bero, eta idorra izan arren, badoala poliki iragaiten bere uratsa eta laster udazkena, aldamenean daukagula.

Bizkitartean iruñarrek ez dira geldik egonda, udako plazerak yastatzeko xedetan; dela mendi aldera,

dela itsasoko legarretara, dela ugalde eta erreka bazterretako izaletara, jendeketa gaitza moimendu gaitzean uzten dute Iruñe gibelean Igande eta jai egunetan, goixtartuz leenbiziko orduetatik asi ta.

Gero illunabarrean, beltzaturik eguzki eta aizea artu ondoren egun guzian, itzultzen dira igandeko udatiarrak nekaturik bainan pozez beterik, biharamunean asteko berriz bakoitzak bere eguneroko lan bide-tan.

Hemen gelditzen diran iruñarrek diote maltzurkeriak: «gureztat au da egun goxoena».

Mintzatuz beste gaiaz, bertze aunitz gertakarien artean, nahi dugu hemen aipatu bedere, herriko gizonek daukaten eskuetan, garrantzi aundiko problema batez: mintzo naiz «Iruñeko garbiketaz».

Gure iri nagusia bizkortu eta hedatu da asko eta asko, geiegi nere ustez, azken urte oketan. Untaz landara bestaldetik, mutil-garbitzaleak geiagotu beharrez eskastu dire Iruñen.

¿Zergatik hori?, nere ustez, sariak apalegi direlako eta oraiko gazteriak ez du ikusten bizi-modu atsegingarri bat ofizio untañ, naiago du joan lantegietara, jornalala gorago eta segurago baten bila.

Gauzak ala izanikan, Ayuntamiento, ezindua gastu aundiak egitera saritzeko behar zen bezela onpleatu berrieri, estutasunean arkitzen da buru emateko koropilo unelakoeri.

Itz batez erran dezagun, egundano ez dugu ikusi, gure leenagoko Iruñe ain txukuna, eta fama aundia zaukan irabazia orregatik, zertaratu den gaurko egunian, hala ikusten dugu zikineriak non nahi bai karriketan bai inguruko larre askotan «expres» utziak, jendearen gandik.

Etxeok andreak behartuak daude gordetzera bi egunez, etxetik atera gabe beren ondarrak, garbitzaleak ez direlako ezertzen biltzera egunero leen bezala, bi egunen buruan baizik.

Gauzak ala izanez, ez da arrigarri maiz irakurtzea egunkarietan, irakurle askok igortzen duten idazkiak, kezakten Ayuntamientoko agintarierik eta erremedioak galdeginez, zikintasunen ondorioak dakarzte makurrak biztanle askoeri.

Ez dut bukatu nai berrixa auek, ohar bat zuzendu gabe Iruñen bizi diren euskalduneri (eta badira ausarki): «Badakizute igandero erraten dela euskaldunen meza eguerdiko amabietan, Plaza de S. Jose delakoan katedraletik ezker aldean Karmelitetako monjen elizan».

Mesede bat galdegiten dautzuet: egin zazue ahal dezakezuten guztia harat gateko meza entzutera, ez balin dezakezue igandero, noizian bein bedere, eta otoi, gaztigatu zuen adixkidantzaren ezaguneri meza hunen berri... Etzazue urrikutiko. Milesker.



SALDIAS

ELKAR MEZA SANTIAGO AURREKO IGANDEAN

Santiago aurreko Igandeko Meza Nagusia Elkar-Meza izan zen gure Ponte Elizan. Arantzazuko Fraile Meza eman-berri batek eta erriko artzaiak eman zuten Elkar Meza. Fraile gazte ori Aranoarra da. Aita Pedro Huizi dira bere izen ta abizena. Erriko artzaiarentzat bertzen gusu egiten da. Zorionak eta aunitz urtez Aita Pello eta bere familiariko guziei.


SANTIAGO EGUNAN EZKURRAN MEZA BERRIA

Aita Joakin Garziarenak eman zun bere Meza berria, Ezkurreko elizan. Etzan barkarkako Meza izan, orain arte egiten gendun bezala, elkar-meza baizik. Arekin batean eman zuten Meza erriko Erretoreak eta beste lau frailek. Aietatik bi ezkurdarrik ziran, bat Portonekoa, dominikotarra, eta bestea Mariexkurrenako bordakoa, frantziskotarra. Aita Joakin Txurdiñeneko bordako semeerik gazteena da. Orain Arantzazun dago. Meza berrira gende asko bildu zan. Bazkaria Doneztebeko Maillinen izan zen. Atsaldeko sei t'erditan aldera Ezkurran pilota partidua. Ondorean Txistulariak jo zuten txistua gazterria yostatzeko. Zorionak eta aunitz urtez ere Aita Joakin eta bere senideko guziei.



NAPARROKO BIZIA

Ubaldo Hualde hil da



Gaur, nere lanbidetan ari nintzala, txartel txiki bat etorri da nere eskutara. Gurutzea gainean, beltzez marratua, norbait gure artetik joan dakigula'koaren marka. Ez dut berehalakoan ideki; lan asko nuen esku tartean, eta berri txarren jakiteko ba da denbora.

Gero, denboraren buruan, idekitzen asi ta nun ikusten dutan Ubaldo Huarle hil izan dela Isaban.

Oituriak gaude txartel marradun beltzak artzen; alare, gaur, idazteko gogo eta amets zabalak igartu eta lurpean gelditu balira bezala, mendebalak jo du nere biotza.

Duela biz-pairu urte ezagutua nuen Isaban. Berez Uztarroze'koa zen. Aurten egingo zituen 95 urte. Erronkari'ko jantzi zaharrez jazten eta bere antziñekoen uskara maitean mintzatzen zen.

Gazte denborako berri ematean, noizbaiteko mundu xaharra ideki zigun, eta ezin sinetsiz bezala, begiak etsita entzuten nion. Eskualdunak ziren Erronkarin jendeak...

Ez da gizon baten eriotza: erri bat da eskuarendako lurpean sartzen dena. Au zen Isaban eskuara mintzo zuen ondar gizona. Eta ez ori bakarrik: Ubaldo'ren txartelako gurutzeak Erronkari'ko lurralde aberatsak bere itzalarekin artu nahi balitu bezala, betiko ilunpean, ildakoen lo zorroan sartuak ditugu, gaurtik asita.

Ubaldo bizi zen artean gure zerbait bizi zen an. Gertakari arrigarri, aritz koropilatuak kimu berriak aterak zituela amets egitea nahiago nuen, ez eta erriaren eriotz latza begiz ikusi...

Gaur, betiko lanbidetan ari nintzala... txartel beltza.

Udazkeneko ego aizeak ostoa arinak aizatzen dituen bezala, eskualerriko oihanak ezurretan gelditzen ari dira. Nun dira Erronkariko zugaiztardulak? Nun gaztain eta intzaurrak? Gaur, ustez lanean ari nintzala, egur ausiaren eupal idorrek lertu du nere biotza. Ubaldo joan da kimu berriki utzi gabe munduan... eta arekin azken ametsak.

Egunetik egunera Eskualerria estutuz dijoo. Itsas bazterreko urak barnera sartzean uzten duen are-lurreko idazkera eta marka, eskual kutsua izango dute etxeak, soroak eta mendiak; odola ere eskualdun. Baño, biotza ilara eta mihia betiko mutu. Erronkari eskuarrendako joana...

Nork daki zenbat itz eta gauza arrigarri eremango zituekin berrekin Izaba'ko azken eskualdun maiteak!

Gaur, lanen artetik, otoi, egin dut: Jainkoak barkatu dezala Eskualerriaren bekatua. Biotz minak ere zerbait balioko aldu guzia dezakenaren aurrean. Amen.

J. M. SATRUSTEGUI

GALONDOAK EGINAK

Gure nekazari maiteak galondoak egin dituzte. Beti bezala golde-tu ondorean arbia erein dute eta gainetik ongarrria ausarki eman. Batzuek kisua nahasi diote. Beste askok arto-bazkak jan ondorean lan bera egin dute, golde-tu eta arbia nahasi.

ULTZIAK GAUR BUKATU DITUZTE

Gure gendeak gero-ta gari gutxiago ereite du, orregatik gero-ta lan gutxiago ultziak egiten. Aurten, esate baterako lau egunez egin dituzte ultziak. Azkenean, babak ere ultzi-tresnaren bidez egin dituzte.

Gure gendea menditik orbelketan dabil azienden kamañerako. Oso gutti joan bear izaten dute, bekoak denak garbitu baidituzte. Gaiñera biltzea franko kostatzen omen da, igaz ostoa erortzean ez omen zun bildu aizeak.

LUR IKARRA

Gaur amabost gaueko amaikak eta laurden aldera gure alderdi oietan egin zuen lur ikarra, gure errian ere sumatu giñuen. Baita ere jende asko estu ta larri jarri. Bearrik segundu batzuen buru pasatu zuela. Jau-nari esker, deus bear eztenik ezda gertatu.



DONEZTEBE

DONEZTEBE'KO AMABOST ALDIKO AZOKA

Agorrillak 4 Nabaritu den oarpena izandu da,

bizitzako beian asko samarren etorrera. Aurreko'tan doñu berean igaroda: sari iraukorrek ta onesteko gora-berarik gabe.

SARIAK: Bizitzako abereak: beiak, esnetan edo ernari, 25'tik 37.000pezetara; bei gazte edo migak, 23'tik 29.000'tara eta txerriku-meak, 800'tik 1.000'tara.

Aragitakoak: beia, 32'tik 36 pezetara kilo bizirik; esnetako txekorak, 75'tik 80'tara eta audigoak, 60'tik 65'tara; txerri gizenak, bertakoak, 30'tik 32'tara eta York, 33'tik 35'tara; eznaikako ardiak, 20'tik 22'tara.

Nekazariak, geienetan bezala, errenkureka; baña izpidea eukiz, zergatik euri gutxi egiten du eta beren soroak ta lanak ondutzen ari dira.

Agorrillak 18

Etorrera on samarra izandu da, gauden garaya'ko. Esnetako bei zati on bat, besten tartean, eta ari ugari. Oetatik saldu ziran batzuek beste gañeko aberean sarin gisara. Bestetan eutsizen da sari gora'ri, gora-bera gutxi'kin. Txerrikemeak ematen dute zerbait.

SARIAK: Bizitzako abereak: beiak, esnetan edo ernari, 25'tik 37.000 pezetara; bei gazte edo migak, 23'tik 29.000'tara; txerriku-meak, 800'tik 950'tara eta ariak, 1.500'tik 2.000'tara.

Aragitakoak: beia, 32'tik 36 pezetara kilo bizirik; esnetako txekorak, 75'tik 80'tara eta audigoak, 60'tik 65'tara; txerri gizenak, bertakoak, 30'tik 32'tara eta York, 33'tik 35'tara; eznaikako ardiak, 19'tik 21'tara.

Euri egin gabe jarraitzen da eta zelai bazterrak, osoro idortuak.

Bidaso'ko Bera'n Euskal-jaiia

Agustua'ren ogei ta zazpigarrenean, igandean, izan zan Bera'n ikasteko eder bat, aurren euskal-sariketa'ri buruz antolatua. Jaialdi ura ikusi ta ondoren, bera-gatik zerbait idaztea ongi deritzait. Egunerokoek eman dute jai onen berri, bañan, erderaz. Ezin leike bada utzi euskalduneri euskeraz adierazi gabe. Gure errietako gora-berak erdera utsean erabilli bear dirala iñun idatzi-ta al dago? Goazen:

Gure Fæerodun Aldundia, beñere baño azkarrago ari zaigu EUSKERA ren alde lan egiten. "PRINCIPE DE VIANA" Elkargoa sortu zuela, amaika urte juan dira. SAIL bat sortu zuen euskeraren alde lan egiteko ta or dabilkigu SAIL ori erriz-erri bere zañak eratzten...

Baztan ta Lau-Errieta'ko zenbait errietan urteko jaien bukaera izanagatik, ala ta guztiz ere, bildu zan Bera'n makiña bat jende. "Jaun de Altzate'ko" plaza ederrak gutxi geiago artuko zuelakoan nago. Auzo arrek lorategi bat idari zuen: arpegiak alai ta balkoietan lore txuri-gorriak ugari.

Ba, programak adierazi bezela, eman zitzaion jaiari asiera: arratsaldeko iru terdian Bezperekin. Eliz-nagusia, guztiz ikusgarria da, oraindik denbora asko ez dala barrena dena arri-uts agirian jarritakoa, katedral baten antzeko eliz zoragarria. Bañan... egia esatea zor zaigu. Barrengo illun-tasun ta onakoxeko gauz trixte batek jo ninduan. ¿Zer zala ta? Bai. Oso naigabeturik, gañera. Eta ba-dut uste nik bezela pentsatuko zutenak izango zirala elizkizun arretan arkitzen ziranak. Asi zan errosarioa, erderaz, beste otoiitz batzuek erderaz, eta jdenal erderaz. Nere aldamenean arkitzen ziran gizaseme ta emakume batzuek euskeraz erantzuten zuten eta "pulpitotik" apez gazte jakintsu ura... y no nos dejes caer en la tentación, mas libranos del mal... Bai, libra gaitzazu, Jauna, orrenbeste gaitzetik... eta iñor erori ez dedilla OKERREAN...

Entzun-ta nago euskera gutxi xamar erabiltzen dela Bera'ko elizan. Egin baño ez egin naiago dela. Erriak erantzuten ez duelakotz? Bertako zenbait apaizen euskeraganako zabarkeria ta gorrotoagatik? ¿Otoi eman bakoitzari berea: chinoeri chinoeraz ta euskalduneri euskeraz. Iru eun aur baldin badira Bera'n euskera dakitelakotz sariak eman zaizkietenak Diputazioaren aldetik, ¿noizko euskera? ¿zertarako euskera? Buru-gabe batek esan zuen bezela: "como artículo de lujo" zokoan eukitzeko? Zentzua dun gizonen ez dedilla ERRU ontan erori.

Erdera utsezko Besperen ondotik, egin zan Altzate'ko plazan euskal-sari banaketa, euskeraz ongi mintzatzen dakiten aurreri. Don Manuel Lasperte apaizak izendatzen zituen aurrak eta Don Pedro Diez Ultzurrunek saribanaketak. Iru euntik gora omen dira izendatuak.

Bigarren: Iruñako Udal-Etxeko (Aiyuntamiento) dantzariak —neskatxak ta mutillak— egin zuten saioaldi berezi bat, aurreku, makil-dantza, sagar-dantza, arku-dantza, ezpata-dantza ta Xuberoa aldeko beste dantzekin batera.

Iruigarren: "Leitzako abeslariak" kantaldi ezti ta xamur bat egin zuten Iruñen jauna zuzendari zutela. Txalo ugariak irabazi zituzten.

Laugarren: Iru bertsolari, bat bezain beste, Xalbador Urepeldarra, Lasperte, Leitzarra, ta Arotzarena, Lesakarra. Batek baño besteak bertso obeak bota zizkiguten, lenbizi denok agurtuaz, gero eman zitzaien gaiari buruz ta azkenik jagur, urrengo arte! esanaz.

Ta, azkenez, ikusgarritzko ta entzungarritzko saioketa bat izan zuten "Ez dok amairu" taldeko Mari Lourdes Iriondo, Xabier Lete ta Mikel Laboak. Eureri entzun-ta baizik ez da esaten aal zer sentimentuz abestu zituzten. Iruak onak dira, ezin obeak, bañan guziz Iriondo'tar Mari Lourdes. Zorionak.

Gero, berriz, Iruñako txistulariak ta dantzariak, ingurutxo ta kalejira batekin eman zuten bukaera jaiari. Zorionak bein ta berriz Diputazio'ko "PRINCIPE DE VIANA"ren" euskeraganako langille amorratuari, aueri esker, ba-dator naparroan alako "berpizte" bat euskerari buruz.

MALDA-ERREKA'KO LAU ERRIETA'TIK

"PRINCIPE DE VIANA"-ren oharra:

Berako «Euskal Besta»-ren asiera AURREI SARIEN BANAKETA izan zan. Besperak igande eta jaietako atsaldetan izaten oi dira erri guzietan, onengatik «PRINCIPE DE VIANA»k etzitun Bezperak antolatu.



Sariak aurrei ematen

EUSKAL BESTA BIDASOKO BERA ERRIAN

Yoan den Agorrilaren 27'an Berako errian euskal besta zoragarri bat izan dugu.

Nafarroako Diputazioko «Institución Príncipe de Viana» ren Euske-

omenez euskal besta ederra izan ginuen. «Bezperak ondoan» Altxateko plazan mundu bat yende bildu zen denak atsalde goxo bat igarotzeko naikeriarekin etorriak. Gaztetxoaren Sarien banaketa egin ondorean Iru-

tasun aundia agertu zutelarik. Gero Leitzako kantari-taldeak Euskalerriko abestiak kantatu zituen eta agitz ongi, korala polita da neska ta mutilak ongi apainduak eta oien kantaldia gustagarria. Bertsolariak ere izan gintuen, iru nafartar eta Euskalerriko oberenetakoak, Xalbador Urepeldarra, Lasarte Leitzarra eta Arotzarena Lesakarra. Ordu erdi bateko kantaldia egin zuten eta erabili zituzten gaiak ere arras egokiak, entzuleek beren bozkarioa agerturik gure kobleriaren ohoretan esku-zarta ederrak yo zituzten. Azkenik «Ez dok amairu» izeneko Taldea bere


ongi kantatuak ere. Gazte oiek beren ahalmenak erakutsi zizkiguten eta yendeak txalo ta esku-zarta aundiekin beren bozkarioa agertu zuten. Iruñeko Peru-Txiki parregileak eskuarazko irri-solas politikak erran zituen eta ikustekoa zen gaztetxoak eta bai adinekoak ere zein gustora egiten zuten irri. Besta bururatzeko euskal erromeria izan ginuen, fandango ta purrusalda gazte ta zaharrek alaiki dantzatzan zutelarik. Besta zoragarria izan da, ar ditzatela gure zorionik maitekorrenak Bestaren antolatzaileak, Berako Erretoareak eta Alkate Yaun agurgarriak




Leitzeko Kantari Taldea. Zuzendaria: Irurtia Yauna.

raren aldeko Sallak antolatutako besta zen eta bereartan Beratar irueun mutiko ta neskatiko eskualdunei eskuarazko esamintetan irabazitako Sariak eman zabezten. Sari oien banaketa zela ta gaztetxoaren

neko Ayuntamentuko Dantzari talde famatuak Euskalerriko dantza paregabeak erakutsi zizkiguten oien artean Zuberokoak, Bizkaikoak, Gipuzkokak eta Nafarroakoak, eta dantza guztiak ederki dantzatuak trebe-



Bertsolariak Lasarte bertso bat kantatzen, atzean Xalbador, Arotzarena, eta Elizondoko Izeta Yauna.



Lourdes Iriondo kitarra-kole eta euskal kantari famatua Berako errian aritzen.

eta atzendu gabe Leitzako Lasarte Apez Yaunak ere, mikrofonoz eta euskara garbian besta guzia zuzendu baizuen.

Eta orai gure zorionik eta goresmen bizenak Beratar mutiko ta neskatiko euskaldunei eta batez ere beren gurasoeri, auek baitira gure mintzairaren oiñarriak. Guraso euskaltzaleak behar ditugu eta familien artean beti eskuaraz mintzatzen direnak, auek dira bai egiazko euskaldunak eta ez bertze gañerakoak. IZETA



EUSKERA ZERTAKO?

Lehenago egunean topatu nuen, kanpotik etorritako «cacereño» deitzen duten mutil horietako bat. Lanbilla jinik (etorritik) gure euskal herriska batera. Lehenbiziko eleetatik zerbait gurea nabaitu nion, doña edo aozkera, eta laster euskeraz abiatu gina, ene arri-du haundian. Gure mintzoa ikasia zeukan berak, duela urte parrasta bat lanean arituz egona den herriska hortan.

Zorionak eman nizkion biotzetik, eta erran: «Ikasi baduzu euskara, hemengo baño jatorragoa zera; eta norbaitek gaixtakeriz edo trufaz, sudurretara botatzen badituz jArrotza!, zuk berehala euskaraz asi zaiozu... eta usu demonio ixilduko dela segur nago».

Onart ditzagun, beraz, kanpotik hel zaizkigun langabeak, beren aldetik bederen gure oiturak eta mintzaira onesten ditzuten ber.

Euskalzaleetan ere badira beltzak eta ukorrek, euskeraren geroak beti negarrez ari direnak. Halako bateri erran nion bein: «Gure herri azituetan jende ikasiak euskaraz egiten badu, aldizka bederen, euskara piztuko da». Euskal herri horietan behar da izkuntza akullatu, eta borondateak ernatu. Izendatuko ezditugun Nafarroako zenbaitean, usarioa, eta oitura irabazi behar dira; jende apain gutti batzu euskaraz asten balira, tarteka bederen, ondoko herriska ttipietan lotsa eta erabea galduko lirake.

Gure herritar askok diote Nafarroan: Euskara zertako?... Hara zertako. Nik dazkitan bi nafar Californiara joan ziren aspaldi, beren Nafarroako herriskatik. Orduan gazte ziren biziki, eta bere aaide baten bidez BAKERSFIELD delako hiriaren aldera urbildu. Beren aaide eskualdun hori enpleatua zegoen ZERRA haundi batean, arras ongi irabazirik.

Lantoki uts batzu baziren han, eta agintari amerikanoak galde egin zekan enpleatu horri eia egiazko euskaldunak (mintzairaz) ote ziren bere herritar bi gazteak. «Baietz ba, prestuak zirela eta euskaldun puruak». Orduan berehala agintariak bi nafar menditarrak onartu zituen bere Lantegian, baitzakien ongi aski lanbideak, prestuak eta ixilak zirela euskaldunak. Leku horietako eskean zeuden, bi euskaldun horiez gañiera, mexicano, eta turko langille parrasta bat.

Bi gazte aiek diru zako pollitak beten odotik, adindu ta bizi dira oraindik. Euskara gaiztoak zerbaitetarako balio du beraz.

Orai artio sasi yakintzu batzuek zioten erdara ongi ikasteko traba zela euskara, eta ainbeste euskaldun kaikuek sinetsi; oraindik hala pentsatzen dute, eta ez nai semeeri erakutsi.

Bañan Pedagoako, duela denbora gutti, bestela gertatzen dela konturatu dira; bigarren izkuntza bat (gure kasuan erdara) obeki eta sakonagotik ikasten dela, aurdanik berea (euskara) ongi baldin badakite muttiko eta neskatikoek.

Bi izkuntza aisa ikasten omen dituzte aurrek, eta traba izan ordez, argiago eta obeki barnatzen, berdinkaritzen eta taxutxen biak.

Horgatik erran zion bein GOETHE yakintzu eta idazlari aleman haundi arek, alemana ikasteko metodo oberena zela ote zen, galdegiten zion gazte ikasle bateri: «Beste izkuntza bai ikas».

Eta huntaz ari gerala, jendea galdezka dago, euskara Eskolategietan noiz asiko, Nafarroan erabakia dagon bezala.

A. APAT ECHEBARNE

kitarra-yole famatuekin aritu zitzaizkigun euskal-kanta berriak agertu zizkigutelarik, ortxe zauden Xabier Lete, Mikel Laboa, eta Mari Lurdes Iriondo iru euskaldun jator eta kantari xarmantak beren abesti zoragarriekin yende guzia bereganatu zutela. Kanta berri oiek badute bai sakontasuna badute bai mamia eta aunitz erran naia, eta ortaz landara



Nafarroko aur guziak ezagutzen dute Peru Txiki, eskual besta guzitan barre eginarazten duena. Lengoa Bera'n kondatu zituen gauza politik ekarri nahi ditugu emen, entzun etzituztenen jostagarri.

Iru mutiko koxkor karamelo erostera sartu dira denda batean.

—Mesedez, peseta baten karameloak.

Gizonak eskalerak artu, eta goiko ahasatik gozoen untzia artu, jexti eta ematen dizkio. Berriz eskaleretan igo eta uzten du bere lekuan.

—Eta zuk behar duzu? Esaten dio bigarrenari.

—Nik, beste peseta baten karameloak...

Berriz, igo eta ematen dizkio karameloak. Bada ezpada, irugarrenari:

—Zuk ere peseta baten karameloak nahi al dituzu.


—Ez; nik ez!

—Uste nuen zuk ere ori bera nahi zinuela. Eta uzten ditu goiko muturrean karameloak.

—Eta zer behar zinuena zuk?

—esaten dio irugarrenari.

—Peza erdi baten karameloak...



Iruñeko Dantzariak Zuberoko dantzan.

Aita peritatik etorri eta amabi karamelo eman dizkio alabari.

—Artu eta ia nola erdi bana partituko dituzun anai txikiarekin!

Neskek artzen ditu iru eta anai txikiari eman.

—Ez al dakizu kontatzen? esaten dio aitak.

—Nik bai; baño anai txikiak ez...



Erriko mutila baserritara bialdu dute gaitz aundia sortu dela eta ollo guziak hiltzeko adieraztera. Egun beroa da eta aldapa aundiak. Azkeneko puntan ba da baserri bat eta leher eginiak eldu da:

—Aizu, Joxepa! —oiu egiten dio. Alkateak esan du gaitz aundia sortu dela eta ollo guziak hiltzeko. Bestela bat ere gabe geldituko zeratela.

—Eskerrik asko, Antton; eskerrik asko. Hilko ditugu gaur bertan.

Jeitxi da gizona gain bera, eta beheko puntan dagola, nun asten dakion garraxiz Joxepa.

—Zer du orai emakume orrek? Eta berriz aruntzaño joan behar ote dut? Auxe duk gaitzgia ollo zikin oiek ematen didatena.

Tanpa, tanpa berriz aldapa gora.

—Zer gertatzen dakizu, Joxepa?

—Ollarra ere hil behar al dugu?



Mutil koxkor batek bizikletakin jo du gizona.

—Txintxirrina jotzen ez aldakizu edo zer?

—Bai, txintxirrina jotzen ba dakit; baño bizikletan ibiltzen ez...



OBANOTZ

OBANOZKO IZKUTUA (MISTERIOA)

Aurten bi urte dira «Obanozko Gilleren eta Felisi Sainduen Gertaera Izkutua» Teatro gisan ematen asi zela. Beste bi urtetan bezala aurten ere gendeketa izugarri bildu da Agerketa guzietan. Zortzi aldiz emana izan da, Agorrilaren 19, 20, 22, 25, 26, 27, 28 eta 29 egunetan. Berriz ere parte artu duten guziei gure zorionik bizenak.